

3. ariketa: aukeratu erantzuna

Ordutegi-aldaketari buruzko informazioa entzungo duzu jarraian.

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

18. Zertaz hitz egiten du berriemaileak?

- a) Diputatuen Kongresuko batzordeen ordutegi-aldaketaz.
- b) Kongresuko Berdintasun Batzordearen proposamenaz.
- c) Berdintasun Batzordeak Kanarietarako onartu duen proposamenaz.

19. Zer egin du Batzordeak?

- a) Familia eta lana bateratzeko neurriei buruz hitz egin.
- b) Kongresuko ordutegien gainean eztabaidatu.
- c) Hurrengo bederatzi hilabeterako ekimenak zehaztu.

20. Bat-bateko erabakia izan da?

- a) Ez, Kongresuan lehenago egin zen bozketa oinarri hartu dute.
- b) Ez, adituen aholkuak kontuan hartu dituzte.
- c) Ez, 60 batzordekideren aldeko botoan oinarritu dira.

21. Zein da proposamena?

- a) Eguzkiarekin bat egiteko, ordubete aurreratzea.
- b) Besteak beste, ordu ofiziala atzeratzea.
- c) Estatuko ordua bi ordu aurreratzea.

22. Zer dio txostenak dendei buruz?

- a) Euskal Herrian Madril bezala jokatzeko komeni dela.
- b) Igandeetan ere zabaltzea aholkatzen du.
- c) Ordutegiak murriztea proposatzen du.

23. Zer bozkatu dute alderdiek?

- a) Alderdi guztiak abstenitu egin dira.
- b) Batzuek aldeko botoa eman dute eta beste hiru taldek kontrakoa.
- c) Batzuek baiezkoa eman dute eta beste batzuk abstenitu egin dira.

24. Zein izan da alderdien erantzuna?

- a) Denek aho batez onartu dute txostenak dioena.
- b) Alderdi batzuek zalantzan jarri dute proposamenaren benetako eragina.
- c) Lan-erreformen abantaila onartu dute, baina berdintasun-legea ez dela guztiz betetzen diote.

25. Zer bide egingo du proposamenak?

- a) Kongresuak onartu ondoren Espainiako Gobernuari dagokio azken erabakia.
- b) Espainiako Gobernuak urriaren 10ean onartzea falta da.
- c) Kongresuko Osoko Bilkuran erabakiko da zer bide hartuko duen proposamenak.